

ZUMAIAN ZER GERTATZEN DEN KONTATZEN DUEN HILABETEKARIA

Baleike

2003ko UZTAILA,
113. ZENB. DOHAINIK



BALEIKE
oporretara doa!!

Betizuek

Jon eta Mikel zumaiarrak Betizu Taldean

ITZALA EMAN NAHI DUENAK ARGIA HARTU BEHAR DU

O

PORRETARA GOAZ!!

Uztaileko zenbaki honetako kontuak jorratzen hasi baino lehen, guretzat oso garrantzia handia duen oharra egin behar dizuegu: **ABUZTUAN JAI DAUKAGU!! IRAILEAN ITZULIKO DA BALEIKE!!**

Abuztua laga, eta uztaileira etorriko gara. Opor usaineko **Baleike** honetan, gauza asko aurkituko dituzue. Ze berri atalean **AEKren egoitza berria** ezagutuko duzue. **Udaleko batzordeen eraketa** ere aipatuko dugu.

Ondo baino hobeto eratuta dagoena **Betizu Taldea** da. Tartean diren bi zumaiarrekin, **Jon Urbietarekin eta Mikel Zubimendirekin** aritu gara *jardunian*. Gainera, bi abeslariaren poster dotorea izango duzue erdiko orrialdeetan.

Oporretan lan egitea tokatzen ari zaie Joni eta Mikeli. Beste asko, ordea, kanpora joateko asmoekin ibiliko zarete. *Ur haunditan* sartu eta **zumaiarrak oporrak non igaroko dituzten** jakingo duzue. **Oporrak igarotzeko dagoen beste modu bat** ere aipatuko dugu.



Lapikoan **bertsoak eta euskara** sartu, eta ondo-ondo nahastu ondoren, olarro zopa goxo askoa prestatu dizuegu. Oporretara joateko Lisboa ez da leku txarra. Handik bidalitako azkeneko *aluga* se irakurri ahal izango duzue.



Uda garaia izanda, kirol munduan arrauna nagusi. Izerdi patsetan ikusten ditugu egunero-egunero arraunlariak. **Luis Mari Goikoetxea** Aita Mari Arraun Elkarteko presidenteari aritu gara solasean.

Opor hauetan hitzetik hortzera eta hanketatik hanketara dabilena **galipota** da. Antzina ere izaten omen zen. Zarrak berri irakurrita izango duzue, besteak beste, horren berri. Hauxe, hortaz, **uztaileko Baleike**. Irakurtzen gozatu, eta ez ahaztu iraillean itzuliko gara. Ordura arte, ondo ibili!! Eta ondo irakurri!!

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faxa: 943 86 17 42
email:
baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Esther Etxeberria
Xabier Azkue

Erredakzio batzordea

Ibon Manterola
Eneko Dorronsoro
Itxaso Ibarra

Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Aitor Manterola
Kazetariak
Eneko Dorronsoro
Ibon Manterola
Itxaso Ibarra
Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet,
Dani Carballo, Inaxio Tolosa,
Belen Golmaio,
Izaga Garzia, Koldo
Landaluze,

Beñat Fernandez de Arroyabe,
Ihintz Linazisoro, Egoitz Lizaso, Garikoitz Telleria,
Natur Taldea, Ander Hormazuri

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Baleike

Publizitatea

943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada

1.000 ale
Lege gordailua
SS-405/94
ISSN
1136-8594

Argazkilaria:

Eva Franco


Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Osa, Ossa ala Otsa?

AURREKO ALEAN Joanito Dorronsorok euskal abizenen inguruan idatzitakoak piztu dit gai honi heltzeko gogo. Berak ondo dioen moduan, Euskaltzaindiak nahiko garbi utzi du nola komeni den idaztea euskal abizen gehienak. Baina gurearekin erronka gogorra jarri digu: Osa gaizki omen dago. Ossa ere gaizki omen dago. Euskal grafia zuzena "Otsa" da, Euskaltzaindiako onomastikako arduradunaren esanetan.

Beraz, "insumisio" txiki bat egin diogu Euskaltzaindiari, eta gure familian, behintzat, lehen bezala jarraitu dugu. Bi anai geratu gara "Ossa"-rekin, eta beste hiru "Osa"-rekin. Saiatu ginen denok "Osa" jartzen, baina Euskaltzaindiak ez zigun baimenik eman, idazkera hori okerra dela argudiatuz.

Ez da batere eroso Ossa abizena izatea paper ofizialetan. Azalpen ugari eman behar izaten dugu Imanolek eta biok, baina ez da gure kapritxo izan, batzuek uste izan duten bezala. Kontua da Franco hil zenean "euskal grafia zuzena" bilatzen hasi zirela batzuek, eta guri esan ziguten "Ossa" behar zuela izan, Zumaia-ko Udaletxean Errepublikara garaiako paper batzuetan gure aitaren osaba batzuen abizena hala agertzen zelako. Gainera, Elorriotik

hasi eta Arrasate, Bergara, Ondarroa eta Gipuzkoako kostaldean oraindik geratzen da jende gehiago ere bi ese-rekin idazten duena. "Ez zarete bakarrak" esan zigun Euskaltzaindiako arduradunak. Ossa-k tradizio luzea omen du, zaharra omen da oso. Eta jatorria garbi omen dago: "Otsaga" (otsoak dauden lekua) izenetik omen dator, Nafarroatik, "Otsagi-Ochagavia" bezalaxe. Eta Otsaga-tik, Otsa, eta Otsa-tik Ossa, eta Ossa-tik Osa sortu omen dira.

Horixe izan zen ederrena: gure abizena nondik datorren jakitea!

Eta tristeena: "Osa" herria duela gutxi Itoizko urtegiko lanen ondorioz bota egin dutela, inguruko beste herri batzuek bezalaxe! Gure etxekook bisitatu genuen, duela urte batzuek, eta hara itzultzeko itzaropena ere bagenuen, baina ezin izango dugu berriro bisitatu...



Joseba Ossa

QUOSQUE TANDEM!

Ismael Manterola Ispizua

NOIZ ARTE? Quosque Tandem izenburupean idatzi zuen Oteizak euskal kulturaren berreskurapena proposatzen zuen liburu ezaguna.

Horregatik ez dut ulertzen Gorka Cabellok aurreko Baleikena idatzitako gutuna. Zein da galdera? Noiz arte zer.

Ez dut uste azkenaldian usainarekin lan egitea artean modan dagoenik. Aspaldiko kontua da artistak ikusmenaz gain beste zentzumenei ere erreparatzea. Gainera, kaka artea edo artea kaka bihurtzearena ere aspaldiko kontuak dira.

XX. mendean hasitako prozesu baten jarraipena besterik ez da azken urtetan ikusten ari garena. Artea zer den edo zer ez den Gorka Cabellok esango digu. Nik dakidan gauza bakarra da 100 urte zerbaiterako pasa direla.

Probokatzea helburu duen artea oso zaharra da, eta ulertzen ez den

artea ere ez da berria, bestela galdetu Impresionistei. Adarra jotzea ere artista batzuen asmoa izan da, baina ez dut uste Gorkak jarritako bi adibide-tan horrelako gauzarik suma dezakegunik. Alondegi zaharrea Manu Urangak jarritako erakusketak, eta Jon Mantzisorrek Koldo Mitxelena egindako lanak ez zuten adarrik jo nahi, eta Gorkari horrelako zerbait iruditu bazitzaion aitik esandakoak hurbilegi jarraitzen duelako izango da. Eskatuko nioke bere aitik artea zer den azalduko balit, nik, behintzat, ezingo nuke horren erraz erabaki artea zer den edo zer ez, nahiz eta urte asko horretan lanean jardun.

Baserritarrek eta sukaldariak artistagoak iruditzen zaizkiola, ez dut nik horrelakorik eztabaidatuko. Iru-dipenak bizitza pribatuaren esparrukoak dira eta norberak jakingo du zer pentsatu.

Hala ere, jendea gehiegi kezkatzen da ulertzen ez duenaren aurrean. Artista batek, Manuk edo Jonek, proposamena egiten dio gizarteari, gero norberak onartzen duen edo ez pertsonaren arabera da. Normalean ez da asmo txarrik egoten, eta ez bazaio gustatu, ez badu ulertzen edo haserretzen bada, ez da ezer gertatzen. Nik ez dut munduan gertatzen den guztia ulertzen, eta horregatik ez naiz haserretzen, azalpenak eskatzea jarrera garbiagoa iruditzen zait. Baina beti ere zentzumenei mundua eta ideiei mundua irekitzeko prest egon behar dugu erakusketetara iristen garenean. Gaur egun egiten den artea aurreiritziz beteta edo gure garai-koak ez diren baloratze-irizpideekin hurreratzen bagara ez dugu gauza handirik lortuko. Beraz, noiz arte epaitu behar dugu gaur egungo artea beste garaiko irizpideen bidez?

Apiretal promenadean



Miriam Romatet

NIK, ALKATE nadinean, herriko plaza, ibilbide edo txokoren bat "Apiretal"aren asmatzaileari eskainiko diot.

Nire kartatxoan irakurle sufrituak, ohiko tono fribolora ohi-tuta zaituztedanez, txundituta geldituko zineten asmo "profundo" hau entzunda; baina bai, apiril hasiberriko goizalde bateko 2,30etan, etxeko pasiloan Molly txikia besoetan hartuta "si tu me dices ven (txa txa txa)" maratoian ari nintzela bururatu zitzaidan.

Batzuk, gazte zorionsuok galdetuko duzue "zer arraio da apiretal?, ez al zen bada epidural?". Ba ez, epidural behin beharko duzu (edo birritan), baina apiretal, berriz, litroka.

Nire alaba zaharrenari lehen txertoa eman behar ziotenean, ni baino "amagoa" (eta zalantzarik gabe, fundamentu gehiagokoa) zen batek galdetu zidan "apiretal ekarri al duzu? Txertoaren jarraian eman, eta ez zaio sukarrrik igoko". Nik, irri-

farre zozo bat ezpainetan, eta neure buruari "nobata, kontxo! Eta nik uste nuen lehenengo sukarrira eta gero botika zela orden zuzena... ze inozoa!"

Handiagoak ere egin ditut, eta nire hiru "Veronica"k, kasta indartsukoak izaki, estoikoki jasan naute. Baina bakoitzari berea zor zaionez, amak eta aitak, besarka dezagun elkar eta esker diezaiogun Apiretal delako pozio majikoaren asmatzaileari gizartearen onerako egindako lana. Nola pasa bestela gure negu luzea, udaberriko alergía, eskolan barreiatutako katarro amaigabeak, eta abar?

Ez dezala inork hau hartu droga bigunen aldeko apologia-tzat, badakizue, "hau botika bat da, eta erabili aurretik irakurri ondo nondik norakoak".



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



**Auto-konponketak
ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



Hiruko bakarren zentzuaz...



Eneko Dorronsoro

...sinesmena Operación Triunfo eta futboleko jokariengan dugun honetan. Nabarmena izan omen baita gizartearen aldaketa azken hamarkada gutxitan. Omen diot, pausoz pauso oharkabean bilakatzen baikara. Eta ez ditut atzera begiratu eta

diferentziaz ohartzeko adina hamarkada. Baina hala diote. Txirri, Mirri eta Txiribitonekin hazi ginenok zorte hori dugu. Ereduak aldatu ditugun arren, pailazo batzuegan sinesten jarraitzen dugula.

Baina drastikoa behar du izan bilakaerak aita, semea eta espiritu santuarekin hazi zirenentzat.

Trinitatearen parte izateak eragiten zidan erresponsabilitatea gaina hartu beharrean nuela, UEU-n izan dugun hizlari baten ahotan ikusi dut argia: "Iparralde, Autonomi Erkidegoa eta Nafarroa. Hiru diren arren, bakarra Euskal Herrian sinesten duenarentzat". Hara hor bat den hirukoa, Gorka. Antza, joanak badik jarraipenik.

Bat, bi eta hiru

Gorka Ormazuri



Bat den hirukoa gora eta behera ez duk sosegu handirik aurtengo udaran, Eneko. Ez diat ukatuko hirukoa bat egite horrek bere zera duenik, baina, amigo, bikoa bat egite hutsarekin lanak ditugunoi hiruko kontu hori gehiegitxo iruditzen zaiguk.

Dena dela, matematika kontuak ez dituk ulertzeko errazak izaten, eta bai, sinesmena behar honelako ideia aldrebesek zentzurik dutela uste izateko. Bazirudik, hala ere, hik sinesten duala Txirri, Mirri eta konpainiari esker. Ondo zegok, motel, trinitate ahulagorik ezagutu diat, baina honelako kontzeptu matematiko- esoterikoetan sinesteko eredu sendoagoak izanez gero, hobe. Bila hasita hor dauzkak Idigoras, Satrustegi eta Lopez Ufarte, adibidez; hori bai, hauek ez diteke besteen kolorerik, ez kantarik.

Bana nola hitz egin hiruko bakarri buruz bikotasun sakratuan bizi denari?. Ixiar, zuen kasuan hirugarren elementuak zer egiten du bildu ala zatitu? Hau drama!

Hirugarren elementuak, sarri, traba

Ixiar Eizagirre



Pertsonak ez du hiruki perfekturik osatzen asmatzen. Nork daki tarta bat hiru zatitan tajuz moztzen?

Koadrilan ere, a zer buruaustek, inpar garenean parrandarako! Basoarekin bakarrik dantzan bukatzen du baten batek, edo paretari hitz egin behar, besteak binaka elkarri belarria jaten ari diren bitartean.

Maitasunean ere, ez dago hirukirik, bigarren planoan dagoen hirugarren pertsona bat, baizik.

Eta Txirri, Mirri eta Txiribitonen kasuan, nor da Txirriren fansa?

Hankak zabaldua dantza zelebre egiten duen sasijakintsu pedante hutsa da. Beste biak dira, umeak saioretara erakartzen dituztenak.

"Zazpiak bat", "bat eta bat hamaika", "hiruko bikotea", "hamarreko kuadrila", eta antzerakoak maiz entzuten ditugu. Ni osotasunaren aldekoa naiz. Bakoitza bat, eta

bakarra. Eta unearen arabera, erabakiko dugu zer beste osorekin elkartu. Eta zenbaten artean bat egin. Baina pertsona bezala eta herri bezala, erdipurdiko trataturik ez dut nahi.

ODONTOLOGIA... PROTESIS DENTAL

CLINICA DENTAL ZUMAITIA HORTZ KLINIKA

Pazoleta de los Faros - Bajo
Tel. (943) 86 14 74
20752 ZUMAITIA (Gauchoa)

Garretxe
Rafael Iraundegi Elgoibar

Kresala
— edergintza —
Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorpuzka edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a



Erribera kalea

Tel. 943 861523

AEKren ETXE BERRIA



Helduen hezkuntzako klaseak ematen zituzten lekuan dago uztaila hasieratik AEKren egoitza berria

Azken urteetako lekua lagatzea erabaki ondoren, berria bilatzeari ekin

zioten. Horretarako Udalarekin harremanetan jarri ziren. Udalarena zen egoitza bat nahi zuten AEKkoek. Hainbat aukera aztertu eta gero, helduen hezkuntzako gelak eskaini zizkien Udalak. Onartu egin zuten.

Aurreko egoitzan zituzten gauza guztiak etxe berrira ekarri ondoren, uztaila hasieratik dago AEK Aita Mari zinearen ondoan. Gustura daude, beti ere hobetu daitekeela kontuan izanda. Gelak oso ondo daudela esan digute. Momentuz ez dute gela gehiago behar, baina behar hori izanez gero, gela gutxitxo ez ote diren kezka badute.

Egoitza erabiltzeko iraupenari dagokionez, hitzarmena sinatu dute bi aldeek. Urtebetez erabiltzeko aukera dauka AEKk, eta lau urteren buruan urtez urte luzatu ahal izango dute egoitzaren erabilerara. Lau urte igarota ikusiko da zer egingo duten.

Datorren ikasturterako matrikulazioak

Uztailean ikastaroak emateko ez da talderik osatu. Hurrengo ikasturteari dagokionez, iraila bukaerara arte ez dute jakingo zenbat ikasle eta zenbat talde izango dituzten. Udalarekin bat eginda, kanpaina egiteko asmoa dute. Kanpaina hori gizarteko sektore zehatzei zuzenduta egongo da: gurasoei, merkataritzakoei eta etorkinei. Irakasle berriak, Jon eta Goizane, itxaropentsu daude, eta lan egiteko gogoarekin. Ikasleak animatzea falta...



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

astegunak: 8:30 - 10

Basadi, 7 behea
Tel. 943143310
Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



Lan-munduan euskara landuz

Baleikeren 110. zenbakiarekin batera 2003ko apirilean Urola Kostako Lan-munduan Euskara Sustatzeko Planaren berri ematen zuen lau orrikoa kaleratu genuen. Lau orriko horretan Aia, Orio, Getaria, Zarautz eta Zumaiako enpresa munduan egindako datu bilketa baten emaitzak jasotzen ziren, lantegietan eus-

kararen egoera nolakoa den adierazten duten datuak, alegia.

Gaur egun bereziki idatzizko erabileran lantegietako lan hizkuntza gaztelania dela aintzat hartuta, ezinbestekotzat jo zen eskualdeko enpresa munduan euskara bultzatzeko ekimenen bat martxan jartzea.

Horrela, gaur egun plana diseinatzeko lanetan ari dira herrietako euskara teknikariak, Elhuyar Aholkularitzaren laguntzarekin. Diseinu horretarako lan-taldea ere osatu da lan-munduko hainbat eragilerek, enpresariekin eta sindikatuetatik nahiz lanbide-heziketako zentroetako ordezkariekin, hain zuzen.

Lan-taldeak ekainaren 12an izan zuen aurreikusita dauden hiru bileretatik lehenengoa. Bertan datu bilketako emaitzen gaineko hausnarketa egin zen eta lan-munduan euskararen alde eta kontra egiten duten faktoreak identifikatu zituzten.

Irailaren amaiera aldera egingo den bigarren bileran planaren helburuak eta egin beharreko ekintzak definitzen hasiko da lan-taldea. Hain zuzen, diagnostikoan jaso ziren faktore positiboak indartu eta negatiboak aurre egiteko martxan zer jarri daitekeen aztertuko dute.

Prozesua oraindik zabalik dago eta hemendik bereziki eskualdeko enpresetako ordezkariak animatu egin nahi ditugu lan-taldearen bigarren bileran parte hartzera, beraiek baitira sektorea ezagutzen dutenak. Horretarako, nahiko duzue 943372052 telefonora deitzea (Olatz) edota mezu bat idaztea olatz@elhuyar.com helbide elektronikora. Planeko hurrengo urrats eta ekintzen berri ere ematen ahaleginduko gara hurrengo zenbakietan. Bien bitartean, bakoitzak bere ahalegintxoak egin dezala lanean euskara gehiago erabiltzeko.



BILERAN KOMENTATU ZIREN HAINBAT PUNTU:

- ✓ Nahiz eta euskararen ezagutzak gora egin erabilerak behera egin du.
- ✓ Euskararen ahozko eta idatzizko erabileraren arteko desoreka nabarmena da.
- ✓ Gaztelania da Urola Kostako lan-munduko idatzizko lan hizkuntza.
- ✓ Lan-munduan euskararen ahozko erabileraren arazoia langileen gehiengoa eskualdekoa dela izan daiteke.
- ✓ Idatzizko dokumentuak euskaraz egiteko zailtasunak daude.
- ✓ Hezkuntzan eredu euskaldunek duten bilakaera ikusita, etorkizunean euskararen ezagutza ez da aitzakia izango lan-munduan euskara ez erabiltzeko.



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517




Tel. 943 143379



Berriako akzioak erosteko toki berria

Orain arte Fielatoko bulegora joan behar bazen ere, hemendik aurrera Aizpurua Liburudendan izango da Berriako akzioak erosteko aukera. Ez ahaztu oraindik akzioak badaudela, zumaiarrok noiz eskuratuko zain. Bestalde, Egunkariaren Aldeko Zumaiako Herri Batzordeak badu abuztuan zerbait antolatzeko asmoa. Beraz, adi ibili, abuztuan zerbait izango da eta.



Tipi-tapa desobedientzia aldarrikatzen



Enrike Lopez

Enrike Lopez eta beste irakasle asko duela 12 urte Euskal Herriko Unibertsitate-tik kaleratu zituzten. Motiboa, intsumisioa egin eta euskal unibertsitatea aldarrikatzea. Harrez gero, kaleratu zituztenetako bost irakasle Leioako Kanpuseko ateetan daude pankarta baten atzean. Enrike Lopez ere hor izan da, pankarta atzean. Baina beste ekintza batzuk ere egin ditu Enrikek. 1996ko apirilean 38 eguneko gose greba egin zuen. Kartzelan ere behin baino gehiagotan egona da. Orain Euskal Herriari oinez bira ematen ari da. Maiatzaren 15ean irten zen Leioatik, eta 1.714garren kilometroan Zumaiara iritsi zen, uztailearen 17an. Gure herria laga, eta hor dabil tipi-tapa desobedientzia aldarrikatuz, eta Euskal Herrian beste ideia batzuk zabalduz.

Presoen eskubideen aldeko itxialdia eta baraualdia



Oxford edo Alondegi Zaharrean uztailearen 18an, 19an eta 20an egindako itxialdian eta baraualdian 10 pertsona izan ziren. Helburua hauxe: presoen eskubideen aldarrikapena egitea. Sekula ez dituzte presoen eskubideak errespetatu, baina azkenaldian etengabe urratzen ari dira eskubide horiek.



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569



Itzurun, 1 Tel. 943 143224

Didier Mundutegi Zumaian



Didier Mundutegik belaontzi honekin eman zion munduari itzulia 2000-2001eko Vendée Globe estropadan. Orain Odriozola lagun duela, Atlantikoa Frantziatik Brasilerara zeharkatuko duen estropadan izango da belaontzi honekin.

Ipar Euskal Herriko marinel bikaina bere belaontzi ikusgarriarekin gure herrian izan zen

Pare bat egun bakarrik egin zituen gure artean. Nahikoa bere belaontzi ikusgarriari jende mordo aho bete hortz begira geratzeko. Antolatutako bisita izan zen. Euskadiko Kirol Portua SA enpresak gonbidatuta etorri zen. Iritsi zen egunean nahi zuenak belaontzia ikusteko aukera izan zuen. Bigarren egunean aurrez izena eman zuten haurrek itsasora irteera bat egiteko aukera izan zuten. Haurrak txoratzen zeuden. Itsasoari egindako bisita horretan Mundutegik eta bere lagun Juan Mari Odriozolak belaontziaren sekretu batzuk erakutsi zizkieten haurrei.

Norbait saririk gabe?

Zumaia sariak banatu zituen Udalak sanpedroen hasieran.

Urtero bezala kirolari mordo saritu zituzten. Baina kirolariek gain izan ziren beste bi saritu ere. Alkoholiko anonimoen Zumaia elkarte, eta urte askoan Beti Gazte dantza taldearen ardura izan zuten Maria Pilar Manterola eta Inaxio Alberdi.

Ekitaldi luzea izan zen. Inor saririk gabe uzteko bel-durrez edo, herriko kirolari gehienek jaso zuten saria. Banan bana denei eman zitzaizen zegokien diplomatxoa. Gero omendu zituzten Alkoholiko anonimoen elkarte, eta Maria Pilar Manterola eta Inaxio Alberdi.



Hauek dira aurtengo Zumaia Sariak jaso dituztenak. Hainbeste izanda argazkian kabitzeko komeriak izan zituzten.



Itzurun
ATEAK

- Material guztietako leihoak: PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

Zinegotziok, zuen karguetara!!

Udaleko batzordeen ardura izango duten zinegotziak nortzuk izango diren erabakita dago

Bederatzi batzorde osatu dituzte. Batzorde bakoitzak, beti bezala, lehendakaria eta batzordekideak izango ditu. EAJ-EA koalizioak gehiengo duenez, batzorde guztien buru bi alderdi horietako zinegotziak izango dira.



B A T Z O R D E E N O S A K E T A

OBRAK ETA HIRIGINTZA

Lehendakaria: Maria Eugenia Arrizabalaga (EAJ). **Batzordekideak:** Manu Zubia(EAJ); Andoni Etxaniz (Izustarri); Iñaki Agirrezabalaga (EA); Emiliano Cabañas (PSE-EE), Kristina Forcada (EB)

EUSKARA

Lehendakaria: Maria Eugenia Arrizabalaga (EAJ). **Batzordekideak:** Lide Amilibia (EAJ); Mikel Garate (Izustarri); Iñaki Agirrezabalaga (EA), Emiliano Cabañas (PSE-EE); Kristina Forcada (EB)

GIZARTE ZERBITZUAK

Lehendakaria: Lide Amilibia (EAJ). **Batzordekideak:** Mikel Olaizola (EAJ); Joseba Azpiazua (Izustarri); Iñaki Agirrezabalaga (EA); Paloma Heredero (PSE-EE); Kristina Forcada (EB)

HEZKUNTZA

Lehendakaria: Lide Amilibia (EAJ). **Batzordekideak:** Mikel Olaizola (EAJ); Joseba Azpiazua (Izustarri); Iñaki Agirrezabalaga (EA); Paloma Heredero (PSE-EE); Kristina Forcada (EB)

INGURUGIROA eta HERRITARREN PARTAIDETZA

Lehendakaria: Mikel Olaizola (EAJ). **Batzordekideak:** Maria Eugenia Arrizabalaga (EAJ); Mikel Garate (Izustarri); Abel Yeregi (EA); Emiliano Cabañas (PSE-EE); Kristina Forcada (EB)

ZERBITZUAK

Lehendakaria: Manu Zubia (EAJ). **Batzordekideak:** Axier Esnal (EAJ); Joseba Azpiazua (Izustarri); Abel Yeregi (EA); Emiliano Cabañas (PSE-EE); Kristina Forcada (EB)

HAZIENDA ETA PERTSONALA

Lehendakaria: Asier Esnal (EAJ). **Batzordekideak:** Manu Zubia (EAJ); Joseba Azpiazua (Izustarri); Abel Yeregi (EA); Paloma Heredero (PSE-EE); Kristina Forcada (EB)

KULTURA, FESTA, TURISMOA eta MERKATARITZA

Lehendakaria: Iñaki Agirrezabalaga (EA). **Batzordekideak:** Lide Amilibia (EAJ); Mikel Garate (Izustarri); Paloma Heredero (PSE-EE); Kristina Forcada (EB)

KIROLA

Lehendakaria: Abel Yeregui (EA). **Batzordekideak:** Mikel Olaizola (EAJ); Mikel Garate (Izustarri); Emiliano Cabañas (PSE-EE); Kristina Forcada (EB)



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694

EGUZKI
PUB
Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B



Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073



Mikelek 11 urte ditu. Jonek 15. Ospetsu izate hori ondo hartu dute. Lasai eta lelotu gabe. Zentzudunak dira, eta dauden munduan gonda, ez da gutxi.

Nondik nora sartu zineten Betizun?

Mikel Zubimendi: Lagun baten bitartez sartu nintzen. Oso lotsatia naiz, eta gainera, hasieran ez nekien Betizun kontu hori zer zen. Lagun hark bultzata sartu nintzen, azkenean.

Jon Urbieta: Nik Mikel ikusten nuen telebistan. Ikastolan ere ipini zuten iragarkia, eta horrela

Betizun bigarren ediziorako izena eman nuen.

Hasiera hartan pentsatu al zenuten orain zaudeten lekuraino iristea?

Mikel: Ezta pentsatu ere. Hasiera hartan jende asko ginen, eta nik neure buruari esaten nion: "hik zer egiten duk hemen?". Baina, pixkanaka aurrera egin nuen, eta azkenean bukaeraraino.

Jon: Jende asko egoteaz gain, zeudenetako asko oso onak ziren. Ematen du Euskal Herrian kantarako zaletasunik ez

ETBko Betizu Taldeko sei partaideetatik bi zumaiarrak dira. Mikel Zubimendi eta Jon Urbieta kontzertuz kontzertu dabilta. Euskal Herriko ume ospetsuenetakoak direla esatea, ez da gehiegikeria.

"Gustatzen zaigulako ari gara, eta lagun berriak egiteko aukera daukagulako"

dagoela, baina jendearen maila oso ona zen. Zaila izan zen irabaztea.

Zumaiatik jende asko aurkeztu al zineten?

Mikel: Bigarren go edizioa gehiago aurkeztu ziren. Lehenengoan gure gelatik hiru joan ginen, eta beste batzuk ere han ziren. Ematen duenez, lehenengoa ikusi eta bigarrenean jende gehiago animatu zen.

Jon: Mikelek irabazi zuela ikusita, zumaiar gehiagok eman genuen izena. Gainera, orain bi zumaiar gaude, baina hirugarren bat ere, Telmo, ia-ia sartu da Betizu Taldean.

Egin beharreko aurreneko lana, kasting-a izan zen. Zer moduz?

Jon: Hiru froga zeuden. Lehenengoan norberak aukeratu-tako bi abesti kantatu behar genituen. Hori pasatuz gero, antzerkia egin behar genuen. Eta hirugarren eta azkeneko frogan, beraiek aukeratu-tako abesti bat kantatu behar.

“Neure buruari
esaten nion: hik zer
egiten duk
hemen?”

Zer izan zen zailagoa, antzerkia egitea edo abestea?

Jon: Antzerkia.

Mikel: Gure kasting-a pixkat desberdina izan zen, baina antzerkia egitea kanta-tzea baino askoz zailagoa izan zen nire-tzat.



gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4

tel: 943 860970

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis

Tel. 943 143334

Hasierako kasting horretara zenbat jende aurkeztu zen?

Mikel: Ez daukat ideiarik ere, baina gutxi gorabehera laurhun bat.

Jon: Bigarrenean ez dakit zenbat, baina asko.

Kasting-ak gaindituta gero, zein izan zen hurrengo lana?

Mikel: Poz handia izan zen aurreneko fase hori gainditzea. Gero, hurrengo fasean, bigarrenean, guk geuk aukeratzeko genuen nor kaleratu. Azkenekoan, berriz, irakasleek aukeratzeko zuten nor kanporatu.

Jon: Bigarreneko edizioan ere antzekoa izan zen. Astean lau izendatzen zituzten. Laukote horretatik guk bat libratzen genuen; irakasleek beste bat; eta jendeak, ikus-entzuleek hirugarren bat. Astean bat kaleratzen zuten.

Betizun kantatzen, dantzan eta beste hainbat gauza ere erakutsi dizkizute. Astean zenbat klase izaten zenituzten?

Mikel: Ostiraletan eta larunbatetan elkartzen ginen. Ostiraletan Donostiara joaten ginen, eta prestatutako kanta abesten genituen. Ahotsa hobetzen ere ikasten genuen Joxerekin. Dantza ikastaroak ostiraletan edo larunbatetan izaten genituen. Ostiraletan Miramonen, eta larunbatetan Durangoko eskola batean.

Lan handia izan duzue, orduan?

Jon: Beno, Mikelek eta larunbatetan ez zuten lan handia izaten. Guk aerobik ere egiten genuen, baina hauek ez.

Mikel: Gurea ez zen bigarren edizioa bezain gogorra izan. Alde horretatik ez, behintzat. Hala ere, niretzako txarrena izan da guk geuk kanporatu behar izaten genuela gutako bat. Elkarren lagunak egin ginen, eta gogorra zen bat kaleratzea. Alde horretatik, bigarren edizioa hobea izan da.

Orain kontzertuak, elkarrizketak eta horrelakoak ugari dituzue. Hain gazteak eta ospetsuak...

Mikel: Bai, kontzertu asko ditugu. Komunikabideetatik ere deitzen diguzue, baina ondo.

Zuen opor garaian, hortaz, lanpetuta zabilzate.

Jon: Beno, kontzertuak egunero ez dauzkagu. Astean bat edo izaten dugu. Hurrengoa noiz dugu?

Mikel: Ez dakit. Hori aitak daki. Nik berari galdetzen diot.

Aita al da ba, zure ordezkaria?

Mikel: Ez, ez. Bera gogoratzen da horretaz, besterik ez.

Lanarekin itota ez zabilzate, behintzat, ezta?

Jon: Ez, ez. Gainera ilusioarekin egiten dugun zerbait da.

Mikel: Gogorra ez da. Kantatzea asko gustatzen zaigu.

Eskola eta Betizu nola uztartzen dituzue?

Mikel: Ondo eramaten ditut biak. Notak, behintzat, ez dira txarrak. izan. Gertatu izan zait pare bat azterketetan ikasteko azirik ez izatea, baina, ondo. Lasai.

Jon: Nahiko ondo konpontzen naiz biak uztartzeko garaian.

Zuen arrakasta ikusita, lagunek zer esaten dizute?

Mikel: Hasieran zerbait esaten ziguten, baina orain ohitu dira.

Eta etxean?

Mikel: Oso gustura daude. Hasieran amak ez zekien zertan nenbilen, baina gero, aukeratu nindutenean, denei ilusio handia egin zien.

Jon: Esan behar dut, kasting-era gurasoekin joan nintzela. Jendea kaleratzen zuten neurrian, ama bakarrik gelditzen joan zen, eta orduan pentsatu zuen hartu nindutela. Oso pozik daude, bai.

Eta kalean?

Jon: Aukeratuak izan ginenean zoriondu egiten gintuzten. Orain ere bai. Honunza gentozela, batek zorionak eman dizkigu. Bestela, Zumaian ez digute ezer askorik esaten. Kanpoan, bai, beste herrietan gauza gehiago esaten dizkigute.

Mikel: Irabazi genuenean, familiako denoi zoriontzen gintuzten. Gogoan dut, irabazi eta hurrengo egunean, Erribera kalea zeharkatzea Oikiaraino joatea bezalakoa izan zela.

Gauza onak eta politikak esan dizkizuela aipatu duzue, baina burlarik egin al dizue?


Mikel: Beno, batzuek bai.

Jon: Zaharragoek burla pixkat egin digute, baina Betizukoak garaile badakite ikusten gaituztelako izango da.

Kanturako zaletasuna nondik datorkizue?

Mikel: Txiki-txikitatik gustatu izan zait kantatzea. Lau urterekin koruan nengoen. Beti gustatu izan zait, eta hortik etorriko zait zaletasuna.

Jon: Niri ere txikitatik gustatzen zait. Amonak ere badu zerikusia. Asko gustatzen zaizkio musika eta musikarekin lotura duten gauzak.



"Gogorra ez da.
Kantatzea asko
gustatzen zaigu"

Betizun zaudetenetik igarri al duzue hobeto kantatzen duzuela?

Mikel: Bai, asko hobetu dut. Ez kantuan bakarrik. Dantzan ere asko hobetu dut.

Jon: Irakasleek esan zidaten bigarren ediziora aurkeztu ginenetatik mailarik onena nirea zela. Orduan, asko ere ez dut hobetu, irakasleen arabera lehendik ere maila altua nuelako.

Hasieran Mikelek aipatu du lotsatia dela, baina kontu honekin lotsa ere galduko zenuten, ezta?

Jon: Lotsak ez dira galtzen.

Mikel: Beste taldekideekin nagoenean lotsa gutxiago izaten dut, baina kalean bakarrik noanean nahiko lotsatzen naiz. Oso lotsatia naiz.

Zenbat jende joaten da zuen kontzertuetara?

Mikel: Adibidez, Bilboko kontzertura hiru mila pertsona joan ziren, eta Donostiakora bi mila.

Eta zer sentitzen duzue eszenatokira igo eta hainbeste jende zuei begira ikusita?

Jon: Hasieran tripan korapilo ederra izaten da, baina abesten hasitakoan korapilo denak askatzen dira.

Bizitzen ari zareten istorio honen alde onak zein dira?

Mikel: Jende asko ezagutzen duzula, eta lagun asko egiten dituzula. Kantuaren mundua nolakoa den ezagutzea ere ona da.

Jon: Mikelekin ados nago. Telebistaren mundua ezagutzea ere ona da.

Eta alde txarrak?

Mikel: Oso goiz jaiki beharra programara joateko. Lagunekin egoteko ere denbora pixkat kentzen du.

Jon: Goiz jaikitze hori niri ere nahiko gogorra egin zait.

Telebista mundua ezagutzen ari zarete. Lehen uste zenuten bezalakoa al da?

Jon: Ez. Asko engainatzen du. Telebistan ikusita denak handia ematen du, baina bertara joan eta platoak, adibidez, nahiko txikiak dira.

Etorkizunera begira jarrita, kantutik bizitzeko asmorik bai?

Mikel: Gustatuko litzaidake, baina asmo horiek betetzea oso zaila izaten da. Hobe ikasketak serio hartzea.

Jon: Ni ere ados Mikelekin.

MIKEL ETA JON

Mikelek 13 urte ditu. Kantatzea, nola ez, asko gustatzen zaio. Baita igeri egitea eta irakurtzea ere.

Jon zaharxeagoa da. 15 urte ditu, eta Mikelen antzeko zaletasunak ditu. Kantatzea du gustukoan, baina irakurtzen, igeri egiten eta dantzatzen ere artista da.



Jakina da, gaur egun telebistetan zer gertatzen den. Audentziarik ez badauka, programa hori kendu eta kito. Zuei ere, akaso, horrelako zerbait gertatuko zaizue egunen batean.

Mikel: Bai, bai, hori horrela da. Jakinaren gainean gaude. Azkenean telebistek izugarritzko indarra daukate, eta horregatik gaude gu gauden lekuan.

Buruan txoririk ez daukazue, hortaz?

Mikel eta Jon: Ez, ez. Gustatzen zaigulako ari gara, eta lagunak egiten ditugulako.



AZKAR!! ABIOIA GALDUKO DUGU!!



Abuztua opor garaia da. Zumaiar asko kanpora joango dira egunerokotasunari ihes egin nahian. Gehienak lasai egotera joango dira. Hala ere, badira oporretan beste era bateko bidaiak egiten dituztenak.

Bidai agentzietara doanak aukera asko dauzka. Hamaika leku eder daude munduan oporrak igarotzeko. Batzuek kostaldea dute jendea erakartzeko, beste batzuek mendia. Hala ere, aukera zabalak izanagatik betiko lekuetara jotzen du jendeak. Zumaiarrek ere bai.

Oporrak igarotzeko lekua aukeratzekoan, adina kontuan hartzekoa da. Gazteek leku jakin batzuk aukeratu dituzte. Helduexagoek beste batzuk.

Familiaren arabera ere aukeratu dira opor lekuak. Seme-alabarik gabeko bikoteek toki jakin batzuetara jotzen

dute. Seme-alabak dituztenek beste batzuetara.

Zumaiarrek aurtengo abuzturako aukeratuak lekuak, lehen esan bezala, betikoak dira. Gazte jendeak, parranda giroa bilatu nahian, Katalunia aldera joko du: Saloura, Lloreteta...

Helduexagoek, eta seme-alaba dutenek leku lasaigoak aukeratu dituzte: Cambrils, Benidorm...

Bikoteek, aldiz, irlak dituzte gogoko. Tenerifen, Lanzaroten, Mallorcan bikote zumaiar asko egongo da abuztuan.

Badira gazteek eta helduek bat egiten duten lekuak. Mendia, nonbait, gazteei

eta helduei gustatzen zaie. Pirinioetan eta Andorran gazteak eta helduak ibiliko dira.

Bistan denez, zumaiar gehienak ez dira Penintsulatik aterako. Bat edo beste Estatu Batuetara joatekoa da, baina gehien-gehienak Penintsulan ibiliko dira.

Lehen, bi asterako. Orain, astebeterako

Orain dela urte batzuk, oporrak kanpoan igarotzen zituztenek, oro har pare bat aste egiten zituzten kanpoan. Penintsulako lekuren bat aukeratu, edo urrutiagoko beste tokiren batera joan, bi aste bidaia izaten ziren gutxi gorabehera.

Gaur egun, ohiturak aldatu egin dira. Gazte, heldu, familiarik gabea, edo familiaduna izan, denak edo ia denak astebeterako joaten dira. Penintsulako opor leku batera joanda, astebete nahikoa izan liteke. Baina Karibe aldera doazenak ere astebeterako joaten dira. Zergatik ohitura aldaketa hori?

Batez ere, agentziek astebeteko iraupena duten bidaietan eskaintzak egiten dituztelako. Eskaintza horietako batzuk azkeneko orduan ateratzen dituztenez, gazte jendea azken unera arte egoten da erreserbak egiteko zain. Helduek, berriz, lehenago hartzen dituzte erreserbak.

Astebeteko bidaiak ugaltu izana azaltzen duen beste arrazoi bat ere badago. Oporrak hartzeko ohiturak aldatu egin dira. Lehen ia guztiak abuztuan hartzen zituzten oporrak. Orain, urteko edozein hilabetetan astebete hartu liteke, adibidez, eta beste hiru aste abuztuan. Astebete hori jai hartzen duen hilabetea edo urte sasoia edozein dela ere, kanpora joaten da jendea. Zumaiar askok egiten du hori, eta enpresa batzuetan ezarri duten laugarren erreleboarekin joera hori handitzen ari da.



Zumaiarrek merketik jotzen dute

Beste guztien antzera, merkea eta ona bilatzen du kanpora joan nahi duen zumaiarrek. Abuztuan, hala ere, zaila izaten da merkea eta ona bilatzea. Opor garaiak bete betean hartzen duen hilabetea denez, prezioek gora egiten dute.

Kataluniako

kosta nahiko merkea da, nahiz eta abuztua izan.

Hala ere, badira merke antzean egin daitezkeen bidaiak. Esaterako, Kataluniako kosta nahiko merkea da, nahiz eta abuztua izan. Horregatik joango da aurten ere makina bat zumaiar paraje horietara.

Beste muturrean, leku garestienak Huelvako kosta, Marbella, eta inguru horretako lekuak dira. Eta abuztuan

oraindik eta garestiago...

Penintsulatik kanpoko lekuetan garestienetakoa Amerikako Estatu Batuak dira. Asko ordaindu behar bada ere, aurtengo abuztuan zumaiar bat edo beste izango da New York aldean.

Kanpora doazen zumaiarren kopurua ez da aldatu

Azken urteetatik hona, oporrak kanpoan igarotzen dituzten zumaiarren kopurua antzekoa da. Baita aukeratutako lekuak ere. Zumaiar gehienek beti antzeko lekuak aukeratzen dituzte oporrak igaro eta egunerokotasunari ihes egiteko. Gure herriak itsaso zoragarria izan arren, asko eta asko Penintsulako kostaldeetara joaten dira. Mallorca, Tenerife, Katalunia, Levante eta Andaluzia dira zumaiarren gustuko lekuak.

Penintsulatik hanka egiten dutenek ere antzeko tokiak aukeratzen dituzte urtero: Tunez eta Europako zirkuituak.

Beraz, oporretan zumaiarrik ikusi nahi ez baduzue, badakizue nora ez duzuen joan behar. Buruari pixkat eragin, eta ea zer bilatzen duzuen...Hori bai, ahal baduzue, merkea eta ona!!

XABIER ARANGUREN:

"ASKATASUN NAHIAGATIK ETA JAKIN MINAGATIK EGITEN DITUT BIDAIK"

Oporrak eguzkipean eta lan handirik egin gabe igarotzen dituztenez aparte, badira beste era bateko bidaiak egiten dituztenak. Bizikleta hartu eta helmuga jakinik gabe ibiltzea gustatzen zaio Xabier Aranguren zumaiarrari.

Xabierri ez zaizkio batere gustatzen betiko bidaiak. Berak bestelakoak ditu gogoko. Askatasun bilatzeko egokiak direla dio.

Zenbat bidaia egin dituzu?

Xabier Aranguren: Ez dakit, baina asko.

Noiz hasi zinen bidaiatzen?

Xabier: Hemezortzi urte nituenean.

Bat aipatzekotan, Andeak aldera egindakoa aipatu behar.

Xabier: Iraupenaren aldetik luzeena izan da. 98an egin nuen, eta sei hilabete egin nituen paraje haietan.

Nondik nora bururatu zitzaizun Andeetako bidaia egitea?

Xabier: Aspalditik nuen ametsa zen. Batzuen gogoa Himalaiara joatea den bezala, nik Andeetara joan nahi nuen. Gainera, bizikletan egiteko leku egokia da. Nik bidaia gehienak bizikletan egiten ditut, eta Andeak leku aproposa dira bizikletan ibiltzeko.

Zergatik bizikletan?

Xabier: Bidaiatzeko eta gauzak ikusteko egokia delako. Kotxea azkarregia da ingurua eta gauzak ikusteko. Oinez ibiltzea, berriz, mantsoegia. Oso bidaia luzea izango litzateke oinez egindakoa. Bizikletakoa, aldiz, abiadura egokia da jakin mina asetzeko.

Zergatik egiten dituzu horrelako bidaiak?

Xabier: Motibo askorengatik, baina batez ere, nora joan eta nola joan nik erabakitzeak aukera dudalako.



"Nora joan eta nola joan nik erabakitzeak aukera daukat"

Bidaiatzeko zure filosofia, eta eguzkipean ezer egin gabe egon nahi dutenena zeharo desberdina da, ezta?

Xabier: Bai, bai. Alde nabarmena dago. Beste opor klase horietan dena zehaztuta egoten da. Nik, berriz, egun batetik bestera planak aldatzen ditut. Goizean jaiki, eta askotan ez dut jakiten gauean lo non egingo dudan. Ni sekula ez naiz joango dena zehaztuta dagoen bidaia horietara. Bertako jendea eta haien arazoak ez dituzu ezagutzen betiko opor horietan. Mundu itxi batean bezala zaude. Nire bidaiatzeko moduak zauden tokiko arazoak eta bizimodua ezagutzeko aukera handiak ematen ditu.

Bizitzeko filosofia al da zurea?

Xabier: Bizitzekoa baino gehiago bidaiatzeko filosofia da. Umetatik sortu zitzaidan jakin minean du abiapuntua filosofia honek. Beti izan dut askatasun nahia, eta inguruak eta jendea ezagutzeko gogoa. Horrelakoa naiz ni, geldirik egon ezin dena. Gainera, nik egiten ditudan bidaiak barne poza ematen didate, eta hori oso garrantzitsua da niretzat.

BELÉN OSA:

" BERRIRO BUELTATUKO GINATEKE "

Belen Osa eta Fernando Osa senar-emazte zumaia-rrak hiru aldiz izan dira Panamako Darien oihanean. Belenen ahizpa han zegoela-eta, oporrak han igarotzeko erabakia hartu zuten.

Belenek eta Fernandok bestelako oporrak, lasai-lasai ibiltzekoak, ezagutzen dituzte. Panaman igarotakoak zeharo desberdinak izan zirela kontatu digu Belenek.

Opor bereziak Panamakoak, ezta?

Belen Osa: Bai. Hiru udatan izan ginen han, beti ere hilabeterako edo joanda.

Zergatik joan zineten?

Belen: Batez ere ahizpa han zegoelako. Baina jendea eta lekuak ezagutu, eta bestelako bizimodu bat nolakoa den ere jakin nahi genuen.

Oporretan betiko bidaiak egin al dituzue?

Belen: Bai, baina ni beti saiatu izan naiz egon naizen herrialdeetako bi aldeak ezagutzen. Adibidez, Hego Amerikan egon nintzenean pobreenekin ere egon nintzen.

Opor sasoia igarotzeko bi moduak ezagututa, zein dira bien arteko desberdintasunak?

Belen: Oporretako betiko bidaietan "ezer ez egitera" joaten zara. Bazterrak ere ezagutu nahi izaten dituzu, baina batez ere lasai egotea da asmoa.

Bestelako bidaietan, guk Panamara egin genuenean, adibidez, lanera joaten zara, bertakoei laguntzera eta haien bizimoduan parte hartzera.

Panamatik bueltatutakoan zer sentitu zenuten?

Belen: Barruko poza, baina, bestalde, konturatzen zara haiek zer gutxi behar duten pozik egoteko, eta gu, hainbeste edukita, ez garela konformatzen.

Berriro joateko asmorik?

Belen: Bai, joango ginatke. Hori bai, ez dakit berriz Panamara itzuliko ginatkeen edo beste lekuren batera joango ginen.

"Konturatzen zara haiek zer gutxi behar duten pozik egoteko"



Horrelako bidaiak antolatzen nora jo behar da?

Belen: Han daudenen bitartez antolatzen dira, edo bestela, Gobernu Kanpoko Erakundeen bidez. Elizaren inguruko taldeek ere urtero antolatzen dituzte horrelako bidaiak.

Joan edo ez joan zalantzan daudenei zer esango zenieke?

Belen: Joateko erabakia norberak hartu

behar du. Ni begiak itxita joango nintzateke, baina askotan gertatzen da, hara joan eta berehala damutzea. Aurrez denbora asko prestatzen ibili, bertara iritsi eta jende askori damutu izan zaio. Garrantzitsua da hara joan, eta bertakoen parean jartzea; gehiago edo garrantzitsuagoa zarela pentsatzen baduzu, jai daukazu.

Gustauko al litzaizuke Betizu Taldian kantatzia?



I igo eta Joseba
Ez, guri lotsa ematen digu.



Itziar eta Maite
Bai, talde politta eiten dute.



Miren eta Maddalen
Bai, kantatzia gustoko degu, ta gainea dantza egitia ere gustatzen zaigu.

CROISSANTERIA

pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

SIWA
Belardenda

Basadi 9
943 143404

- Etikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

TALAI

INMOBILIARIA 943 143361
BIDAIAK 943 143323
Ortega y gasset, 1



Unai Elustondo
Ez, etzait kantatzia gustatzen.



Maria Zubia
Bai, asko gustatzen zait kantatzia.



Leire Esnal
Bai, kantatzia gustzen zait-eta.



Imanol Yeregi
Ez, lotsa ematen dit.

GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko arrietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409

Alberdi

Gizonetzkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

Tapaia
Saltea

Erribera Kalea 20750 ZEMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

STIOM
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 **943 860151**

ARozTEGIA

Urolo 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505

Maialen Velardek Mungian kantatutakoak

Bertsolaritza

Gaurkoan egokia iruditu zaigu Maialenek Euskalerriko bertso txapelketan kantatu zituen bertsoak zuenganatzea. Institutuak eta Bertso Eskolak antolaturik 30 lagun inguru joan ziren autobusez Zumaiatik Mungiara Ekainaren 2lean, eta bai animatu ere gogoz bertsolariak, eta animoso itzuli, gainera etxera, egun pasa ederra egin da. Lurralde bakoitzak bi ordezkari bidali zituen aurten ere bertara, eta aipatzekoa da Maialenez gain, beste bi zumaiarren alabek kantatu zutela bertan; Gasteizko eskolatik Arritxu Santamariarenak eta Lapurditik M^a Tere Antiarenak, Amets Arzallus ezagunaren arreba gazteak, alegia. Azken urteotan somatzen zuten gure gazte-
txoek beren adinekoen bertsogintzan ez zebiltzala gailurretik oso urruti, eta aurten frogatu dute: Gipuzkoakoan txapeldun eta Euskal Herrikoan bigarren. Bide onetik goazela, eta aurrera gogotsu jarraitzeko bultzada ematen dute horrelako sariek.



Zumaiako Bertso Eskola

Agurretan botatako bertsoak utzi, eta Maialenek bat-batean kantatu zituen aleak aukeratu ditugu erakusgarri.



OINAK emanda... itxura-duda-heldu da- itxura
Doinua: *Realzaleok maite (amaren besoetan)*

*Txapapoteak hoztu
digu aurten uda
eta konponduko den
nik badaukat duda
behintzat aurtengoak du
beltz-beltza itxura
zer garen azaltzeko
garaia heldu da.*

HITZA emanda... Hitzza: musika
Doinua: *Dama askoren engainagarri*

*Dela kortxea, dela bemola
bada hainbat hika-mika
batetik Mozart, bestetik Chopin
a ze nolako praktika
jotzea ta entsaiatzea
da kirol honetxen taktika
pozaren soinu alai degu
gaur eguneko MUSIKA.*



Nikol  Enea

TABERNA

Amaiako plaza

OSTOLAZA

BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

Munduko hizkuntzak eta euskara, euskaldunak eta mundua

Euskara

BEHIN ERE hitz egin al duzue lagunekin edo etxekeekin euskararen gainean? Ba, ze esango dizuet ba, Zumaian asko/gutxi hitz egiten dela, gazteek ez dakigula euskeraz "jator" egiten, helduak batzuetan egoskorrak direla "beraien" hitz egiteko erarekin, Tolosa inguruko euskera politena dela, edo ez dagoela euskera politik eta zatarrrik, ETBkoa eta Egunkariakoa (Berriakoa) ezin direla entenditu, edo ohitura kontua dela ETB eta Berria ulertzearena... seguru baietz, gutxi ala gehiago, denok jardun duzuela halako edo bestelako gaien inguruan.



Ibon Manterola

ez dezu eukiko". Eta ondo dago, praktikoa da, ingelese ikasi eta indonesiar batekin hitz egitea, Irlandako lagunari emaila idaztea... Baina ez dugu ahaztu behar ingelese (edo frantsesa, edo portugesa, berdin zait) sei mila hizkuntzetako bat bakarra dela, milioika hiztun daukana, indar izugarria daukana.

Eta zer gertatzen da munduko beste hizkuntza gehienekin? Ba asko eta asko desagertzen ari direla, edo desagertzeko bidean daudela. Nahi baduzue modu ponpoxoan emango dizuet datua: munduko hizkuntzen erdia baino gehiago (hiru milatik gora, gutxi gorabehera) egoera hauetako batean dago: desagertuta, desagertzear, desagertzeko arrisku bizian, edota desagertzeko prozesuan sartzeko egoeran. Niri, behintzat, triste xamarra (era "xuabe-an" esatearren) iruditzen zait euskara bezalako hizkuntza txikiak desagertzen ari direla ikuste.

Azken finean, hizkuntzak (edo kultura desberdinak) eta mundua antzeko begiekin ikusten ditugu: edo ingelese eta beste zazpi hizkuntza handi bakarrik dauden mundua ikus dezakegu, eta horrela munduaren aberastasun handienetako bat zakarretara bota; edo gure globoaren argazkian sei mila hizkuntza inguru, sei mila herri, sei mila kultura, sei mila bizitzeko era ezberdin ikusten ditugu: alde ederra, ezta?

Eta orain pentsa dezagun zer ari garen egiten gure hizkuntza eta herriarekin...

Ba nik gaur horietako beste gai bat proposatu nahi dizuet, berezi xamarra, "kuriosua" : pentsatu munduari argazki bat ateratzen diogula, eta bertan kontinenteak eta nazioak ikusi beharrean hizkuntzak ikusten ditugula, munduko hizkuntzak. Igual harrituko zarete, baina munduaren argazki horretan 6000 hizkuntza ikusiko genituzke, gutxi gorabehera. Honek zer esan nahi du? Ba, hasteko, munduan ez dela ingelesez bakarrik hitz egiten; ezta frantsesez, gaztelaniaz, errusieraz, hindieraz, txineraz edo arabieraz bakarrik ere. Gure artean ingelesak, adibidez, fama ona dauka, ondo ikusita dago... "ikasi inglesa, ta munduan ibiltzeko batere arazoikan

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



MENDI - ONDO c.b.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



icardo J. Azcue Yeregui

Abokatu + Aseguruak
Finke Administrazioak

bonin aguirre 4. behea
20.750 zumak (guzuzkoa) Tel: 943 862651
E-mail: iazcue@euskalnet.net Fax: 943 862748

Rosi
garbiketak

* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Errota garbiketeta eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670



Itzali egin zaigu, saudadez

TASQUINHA BATEAN zerbeza bat hartzetik gatoz, kalean behera. Gaez. Uda aurrera doa pausoka; azken egunak hauek, banan-banan jarritako kutixiazko adokinen mosaikoan barrena ibiltzeko. Eta bat-batean klik! edo, plaf! Argia joan da Lisboa. Apur bat atezuan egon ostein, bidelari jarraitzea erabaki dugu. Ez dira aztoratuko ez hauek, lisboatar patxarosoak, bizitzak aurrera darrai-eta. "Joan den bidetik etorriko al da!" pentsatuko balute bezala. Kaleak oro ilunpetan daude, baina begiak argi zerekin topo egingo.

Lagunari besotik heldu eta karrikan barrena goaz, gora behera, egunotan daukagun bihotz errea, afaldutako baratze zoparena ez dela konturatuz. Bihotz errea, errea, herrena... batek daki.

Gaur gauean arazo elektrikoak, Lisboako erdigune guztian argiak itzali egin dira. Lisboa itzali egin zaigu. Horratx metafora! Eta kalean barrena, konprenitu berri dugun saudadeari ohorezko akelarre malenkoniatsua eskaini diogu. Gaez. Geure erara. Herenegungo ilargi beteari dizdira dario oraindik eta tabernariak kandeletako suarekin argiztatu dituzte taskak. Aurrerago jendeak oihu zoroak han, barre algarra amaigabeak hemen. Gure sorgin kuadrila hemen balego... Lisboa itzali egin zaigu. Mutil beltzaran batek eskuko soinua gorriari eraginez, malkoz margotutako doinuak aireratu dizkigu inguratu garenoi. Han azaldu da ordea, kitarra rastaduna, sei sokarekin giroa bixitzera. Kantu, balantza eta txalo artean irribarre zuri-zuriarik ikusi ditut aurpegieta, eta nik ere parre egin diot gau ilun ederrari, eta ilargiak Tejon duen itzal zuriari,



miradouroetatik ikusitakoari, kolonietako oinordekoei eta Portugal zaharraren berritzaileei, 28aren atzerapenei eta fakultateko idazkari petralari, lagundu didaten irakasleei eta irakatsi didaten lagunei, kale zokoetara sartutako eguzki printzei eta itzal egin didatenei, gingina bat hartzera gonbidatu eta caipirinha baterako dirua eskatu didaten haiei, kafe gozoari, gerribuelta mantentzen didaten jatunei, haserrarazi nautenei eta muxuka jango nituzkeenei, begiak irekitzea zein ona den azaldu didatenei, fadoei eta vossa novari, Alfamari, Bairro Alto eta Graçari, hutsaren truke alokairuan jarritako lerro hauei bixita egitera etorri zaretenoi, hiri hau neurea ere badela sentiarazteagatik, irriparra atera didazuen guztioi, zuei eta Lisboaari. Muito obrigado. Itzali egin baitzait, saudadez.

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentu

Ohizko tratamenduez gain:

CORO PRIETO
Esteticista

- Laser bidezko depilazioa
- Mikropigmentazioa
- Tatuajeak

Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g Tel. 943 861322

Aio ta ondo segi!!

Azkena da. Kitto!! Akabo koadriben bueltan !! RIP!! Iraileko zenbakiyan ez dezue orrialde hau ikusiko. Holakotan ohikoa izaten da errepassua itia. Zein azaldu dian, zer in deun...

Ondo iruitzen bazazue hoixe ingo deu (gaizki iruituta ere igual dio, berdin berdin ingo deulako). ERREPASUA. Hasi ondo hasi ginan. Jendiak parte hartze zun, testuak idazten zituen, argazkiak bialdu...Alde horretatik nahiko ondo. Hala ere, hilabete batzutan hutsunea betetze aldea guk geuk idatzi behar izan deu, Baleikeko koadribak. Ta egia esateko (ez da faltsukeria) oso gustoa ein deu. Parre nahiko ein deu, behintzat!!

Dana esaten hasita, bete lana ite horretan zeruko laguntza izan deu. Bai, bai, zerukua. (Uain ez hasi leihoa ertenda "milagrua, milagrua!! esanaz). San Telmok

eta San Pedrok e-posta bana bialdu zizkiguten. Bakoitzak bere astuai arre esaten diola esaten da. Lurtarren arteko zoeze zalakuan, hara nun zerutiarrak ere gure antzea ibiltzen diala. Elkarren inbiditan, aizue. San alde batetik, san bestetik, nor san(han)diago. Earra sangehiagoka!!

Despedidan baten berri ere eman dizueu. Despedida zabal-zabala. EITBko

anuntziyua bezelakua. Zabala despedituan tamainagatik. Zabala despeditua kale gorriyan utzi zutenek kalian zabalero osua behar zutelako (ordu txikitan bai behintzat!!). Despeditua aipatuta harekin bat itea doa orrialde hau. Kale gorriara!! Enpresayuen baimenakin, ekonomian egoera jarriko deu aitzakizat. Norbait kaleratzen dutenian bezela, orri hau ekonomian beheranzko egoeragatik doa kalea (bertsio ofiziala da). Beraz, norbaitek motiboengatik galdetzen badizue esan ekonomian egoera txarragatik dala. Hala bedi!!

AIO TA ONDO SEGI!!! IRAILAN BESTE ZEOZE IZANGO DA ORRI HONETAN!!



SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzuzeko abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

zidatzeko baimen guztiak



EGOKI



Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGI

INMOBILIARIA



Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01



Arantza Aramendi

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

LUIS MARI GOIKOETXEA:

“Ea bandera koxkorren bat ekartzen dugun”

Lasai dago, itxura batean, Goiko, Aita Mari Arraun Elkarteko presidentea. Arraun munduan eskarmendu handia duen gizona da. Denboraldi hasiera; sortu berri den Traineruen Kluben Elkarten Liga; zumaiarren etorkizuna... gai asko ditugu Goikorekin solasean aritzeko.

Itsas Kiroldegian egin dugu hitzordua, eta bere bulegoan bildu gara, paperez beteta dagoen mahaiaren jiran.

Sailkatzeko jokatu beharreko estropada guztiak jokatuta, Telmo Deun Federazio Ligako lehenengo mailan ariko da. Esperotako emaitza?

Luis Mari Goikoetxea: Kantabrikoko Liga horretan sartzeko oso aukera gutxi genituen. Aukera apur horiek aprobetxatu nahian joan ginen sailkapenera, baina ez zen ondo ateratu. Orain Federazio Liga honetan gauza politak egiteko asmoa daukagu.

Aurtengorako badituzue berrikuntza hasteko, babeslearena.

Goiko: Bai, Altuna eta Uria enpresa izango da datozen hiru urteetan gure babeslea. Zorte handia daukagu horrelako enpresa bat gurekin izanda. Gero, Paterninarekin dugun hitzarmena aurten bukatzen da, eta ikusiko dugu jarraitu nahi duen edo ez. Ezezkoa ematen badigu, besteren bat bilatu beharko dugu.



“Zorte handia daukagu Altuna eta Uria enpresa gurekin izanda”

Arraunlari berriak ere badituzue.

Goiko: Arraun Lagunak taldeak trainerua ateratu ez duenez, lau donostiar etorri zaizkigu. Beraiek erabaki dute Zumaiara etortzea. Beste leku batzuetara joan baino nahiago omen zuten hona etorri, eta horrelaxe. Maila politiko arraunlariak dira.

Denera, zenbateko koadrila osatu duzue?

Goiko: Arraunlari asko ditugu aurten. Horietako batzuk lehenengo urtekoak. Bi traineru ateratzeko asmoa genuen, baina arraunlariak uzteko hitza eman zigun klub batek hitza jan du, eta ezin izan ditugu bi traineru ateratu. Ondorioz, arraunlari batzuk Ondarroari utzi dizkiogu.

Oriotarrak al dira hitza jan dutenak?

Goiko: Bai. Betikoa da hori, emandako hitzaren jabe ez dira.

Beste talde batzuetara joan diren arraunlariak ere badira.

Goiko: Bai. Bi Oriora joan dira, eta bana Urdaibaira eta Pasai Donibanera.

Aurtengo denboraldiko berrikuntza handiena Traineruen Kluben Elkarten Liga da. Arraun mundua bide zuzenean sartuko al du Liga jaioberririk?

Goiko: Gauzak ondo egiten dira, bai. Arazoa izan liteke beraiek goian daudenez, beraien buruei bakarrik begiratu, eta beste guztiak baztertzea.

Behetuekin gogoratuko direla uste al duzu?

Goiko: Lehenbiziko pausoa, behintzat, ez dira gogoratu. Bigarrenean ikusiko dugu... Pare bat taldek behetuekin gogoratzeko saioa egin dute, baina beste guztiak ez.

Zein izan da lehenbiziko pauso okerrak?




Mota guztietako alzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14



GAZTEEN EUROPA

ZALLA
Taberna - Erreteria

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

Goiko: Kalendarioaren kontuarengatik esan dut. Espainiako Txapelketa jokatzeko eguna libre laga dute, baina Euskadikoa eta Gipuzkoakoa jokatzeko egunetan estropadak jarri dituzte. Aurreko bilera batean galdetu nien ea Espainiako garrantzitsuagoa den. Inork ez zidan erantzun. Hala ere, oraindik garaiz daude arazo hori konpontzeko.

Lehiaketari helduta, noraino iritsi daiteke Telmo Deun Federazio Ligako lehenengo mailan?

Goiko: Ahal denik eta ondoen egiteko asmoa dugu. Ea bandera kokorren bat ekartzen dugun... Goian ibiltzeko asmoa daukagu.

Talde guztiak 10 segundoren bueltan izan zarete orain arte. Parekotasun handia, ezta?

Goiko: Bai, bai. Hor gaude denak, eta ikusiko dugu noraino iristen garen.

Zenbat estropada izango dituzue Federazio Ligan?

Goiko: Ligako 11, eta Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketa. Momentuz, horietan.

Aurtengoa hasi bakarrik egin bada ere, etorkizunari begiratuko diogu orain. Arraun munduan dabilzanek

"Hemendik pare bat
urtera koadrila
polita egon liteke"



Bazkide laguntzaileak egiteko kanpainan erabiliko duten kartela.

diote Zumaiak etorkizun polita daukala. Hala al da?

Goiko: Bai. Gazte mailan badira zortzi arraunlari maila onekoak. Datorren urtean segitzen badute, koadrila polita egin liteke. Aurten traineruan dauden gazteek ere esperientzia hartuko dute, eta hemendik pare bat urtera koadrila polita egon liteke.

Beste taldeetan dauden zumaiarrak berriz etxera ekartzeko asmorik bai al duzue?

Goiko: Ikusi egin behar beraiek etorri nahi duten... Asmoa hori da, etxekoak etxera ekartzea. Horretarako beste babesle indartsu bat bilatu beharko dugu, ea denei zerbait emateko aukera daukagun.

Zuen asmoa, orduan, arraunlariei ordaintzen hastea da, ezta?

Goiko: Gauzak aldatu nahi ditugu. Ordaindu ere ez litzateke izango, baina arraunlariei aliziente antzeko bat eman nahi diegu.

Dirua behar horretarako, eta herrian diru biltzeko kanpaina egitekoak zarete.

Goiko: Bai. Tabernetan jarriko ditugu iragarkiak, eta nahi duenak dirua emateko aukera izango du. Bazkideak egiteko kanpainaren antzekoa izango da. Laguntzaileak bilatu nahi ditugu, diruz lagunduko gaituztenak. Urtean 60 euro eman beharko dira, eta era askotara ordaintzeko aukera izango da: urtean behin; urtean bi aldiz; edo hilero-hilero. Herriko taberna guztietan izango dira iragarkiak.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAI A MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 943 143143

ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel. 943 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

LEHENO ERE BAZIAN BERANEANTIAK

NEGUA. EGURALDIKO igarleek elurra egingo duela ez duela egingo esaten dabilta komunikabideetan, eta gu bitartean zain ea zer egingo ote duen. Garai batean istorio laburrak bildu ditugu. Hona hemen zenbait istori:

Antzinean neguak oso gorra izaten zian, urtero izaten zan elurra. Orduan negua negua, primabera primabera eta udara udara izaten zian, normalak zian ez oain bezelakuak. Gure garaian, elurra, izotza...ta gainere okerrena izaten zan izotz beltza izaten zanian, oso txarra zan ikaragarrikoa, oain ez dao holakorik.

Seseintaidoseko eta seseintaitreseko negua ikaragarrikoa izan zan. Etxean zian kaneixak izoztu iten zian ta ur gabe geratzen ginan, orduan San Juan iturritik ekarri behar izaten genun. Etxeko ura izoztu iten zan, ta geo ondo jartzeko, kaneixak, itten zian lastuakin bildu kaneixak pixkanaka-pixkanaka bere onea jartzeko, baina askotan lertu iten zan ta orduan fontaneruari deitu behar izaten zikon, konpontzeko. Gau guztian iturria azkenengo tantanak erortzen uzten genun, gabian kaneixak ez izozteko esperantzakin. Etxeetan etzeon kalefaziya, etxe pribiligiatuetan bakarrik. Etxea ekonomikarekin berotzen genun, ikatzakin iten zen sua.

Eskolan berriz, estufa txiki-txiki bat geneukan, serrinezko estufa, etzun batere berotzen ta haizia bera jotzen zunian gela dana kiaz betetzen zan, oaingo neguak ez dia ezer garai hartako neguekin konparatuta.

Erriak sendatzeko etxe guztietan eoten zan botika elurrarekin egina, botila batian sartzen zan oliyo oliba, botila erdiraino, ta bestia elurra kin bete ta hura gordetzen zan urte osoan errien zaurinak sendatzeko, aspaldiko urteetan ez da iten, gutxitan iten duelako elurra.

Elurra zeonian ez esneik..., ta ogiya eskerrak Zumaian iten zala. Baserritarrak etzian jeisten, orduan astoetan jeisten zialako, ta elurra kin ezin tzuten. Ta batzako gauza guztiak izoztu iten zian; loriak, azak..., dena.

Orain Leon, Soriako elurteak entzuten ditugunian, gure gazteetako denborekin gogoratzen gara., ez ginan inkomunikatuta geratzen baina...

Gu geneukan erropa ere ez dira oain bezelakuak, abrigo mehe bat ta guantiak juxtu-juxtu, orain dauden gauzak edukita eskiatzen ikasiko gendun.

Elurra iten zunian oso gutxi ateratzen ginan kalera ta eskolara ez ginan juten, izan ere elurra kentzeko etzeon ezerrez, palakin kentzen zuten bide pixkat iteko. Izotz beltza zeonian oso zaila zan kentzia, asko kostatzen zan kentzia, orduan negua negua zan. Urtaro bakoitzean in behar zuena iten zun.

Igerian nola ikasten zuten

Inork irakatsi gabe ikasten gendun igerixan, soltatzen ginan ta listo. Baino batzuk igerixan jakin ez ta ordun soka bat jartzen zuten urertzean, kable bat, hari heldu ta bainatu. Askotan izaten

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

GANBARA



Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

dekorazioa

ALBERDI



696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a



Basel Auzategia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAIA

AITA MARI
KAFETEGIA

Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 ZUMAIA



Arkupe

*Okindegia
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

zen itxaso txarra ta kable hari esker bainatzen ginan. Ez da uain bezela, len urtero itotzen zen norbait etzeolako oain dauen sokorristak, itxaso moitua zan. Trinik, Trino Bidasoron alabak, jende asko salbatu zun, "salvavidas" jartzen zun ta playako jendiak sokatik tiratzen zun (Triniri laguntzen) itotzen zeon jendia salbatzeko.

Banderik re etzeon, ez gorri, ez hori ez berde, ta oain ematen duten bandera urdin hori re ez.

Ohiturak

Bazan ohitura bat: karmengo Ama Birjinak ura bedeinkatu arte (uztailak 16) ezin zan bainatu, bedeinkatu ondoren jendia hasten zan bainatzen nahiz ta kanpokuak bainatu, gu saiatzen ginan ez bainatzen.

Beste ohitura bat zan, setienbrian beatzi bainu segido eittia negu ona pasatzeko, ta egun bat fallo in ezkeo berriro hasi behar zan, beatzi egun segido izan behar zalako. Bazian uda guztixan playara juten etzianak ta setienbrian bainatzera juten zianak negu ona pasatzeko.

Santixo

Santixo oso desberdina zan, len ura Zuloagaren hormaraino iristen zan, geo eskoilera in zuen ta ura asko jeitsi zan. Len peligrusoago zan ura goraino iristen zalako, ta itsasua re zakarragua zan. Oso playa handixa zan etzeon oin dagoen belarra.

Juten ginan baina oso gutxi, beraneante geio juten zan, Itzuruna juten ginan geyo oain bezala, Itzurun herrikoia go da.



Algorri

Gure garaian (orain dela 60 urte-edo ta gerora re) abarien playa zan, abariak bakarrik juten zialako.

Galipota

Garai haxetan ia etzuten playak garbitzen, ta galipota? ba, Itzurunen beti eon da galipota, baina ez oaingua, noizean behin hankian zerbait baino oso oso gutxi, iya ezer. Nahiko garbixak eoten zian playak.

Emilio Perez
Elektrogailuen salmenta eta konponketa

ADI

Poboa Eteazarreta, 23
20750 ZUMAIA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 143 415
E-mail: adiele@euskalnet.net

ad **AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

Kresala
Taberna

Julio beobide 3, tfno. 615 70 25 23

ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 943 862083

LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6

taberna JUSTA
eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



Haizearen menditik...



Orain badakit... Orain badakit oso gaizki zihoala...
Orain badakit...

Haizearen mendian behetik gora gindoazen. Igoera hasieran elkarrekin ginen. Elkarrekin eta gu

bezalako beste askorekin. Sekulako beroa egiten zuen, uztaileko bero astuna. Haizearen mendia magalean sartzerako, berrehun kilometro eginak genituen. Beroa eta nekea ziren liderrak. Gu, ziklistak, gregarioak ginen. Beroaren eta kilometroen menpe geunden langileak. Berehala egin zen indartsuenen taldea. Gu ere han gindoazen. Biok ere larri antzean.

Haizearen mendian ez dago ez landaririk ez zuhaitzik. Haizeak denak aurretik botata baliu bezala dago. Hildako mendia da. Bizitzarik gabea. Orduko hartan gu ginen bizidun bakarrak. Eta nolakoak. Bagindoazen gorantz, beherantz eta gorantz begiratu nahi ez genuela. Botila txikietako ura agortuta geneukan, dagoeneko. Haizea. Beroa. Ezina. Nekea. Hura sufrikarioa. Bat batean, ezinaren erreinuan bat errege egin zen. Taldetik aurrera egin, eta metro batzuk hartu zituen. Bera zen. Bera. Haizeari, beroari, ezinari, nekeari aurre egiten ari zen. Bazioan gorantz, haizearen erreinura. Gainontzeko karreristek atzetik jarraitzeko imintziorik ere ez genuen egin. Nirea normala zen, bera taldekidea nuelako. Beste guztiak ezin zuten. Igitaiarena egiten gindoazen. Oker-oker. Alde batera eta bestera. Atzean zihoazenetatik bik hanka lurtean jarri behar izan zuten. Hura irudia.

Bitartean, bera bazihoan. Poliki baina bazihoan. Zuzen. Tente. Gorantz begiratu nuen, eta berrehun bat metrora zihoan. Alde egin zigun. Poztu egin nintzen. Taldekidea izateaz gain, laguna ere banuelako. Haizearen erreinuan bera izango zen errege.

Ez ziren pentsamendu txarrak haiek. Nire ezina arintzeko lagun onak ziren. Berak irabaziko zuela jakiteak bizipoza eman zidan. Hala ere, gaizki nindoan. Indarrik gabe. Pedalei eragiteagatik eragiten nien. Automatismo hutsa. Nirekin zihoazen beste guztiak ere antzera zihoazen. Jota.

Bera ez. Kanpoko itxuragatik ondo zegoen. Gorantz nola zihoan ikusita ere ondo zegoen. Gero eta alde handiagoa ateratzen



"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91





zigun. Errebuelta bat ematen ikusi nuen. Zutik jarri zen. Balekoa zela pentsatu nuen.

Gu ere gure txarrean ari ginen errebuiltara iristen. Halako batean sirena hotsak entzun nituen. Anbulantzia. Txistu batean pasa, eta gorantz egin zuen. Horrelako egoeran pentsamendu txarrak izatea ez da arraroa, baina bera etorri zitzaidan gogora. Bera. Laguna eta taldekidea. Nituen indar apurrak behartuz, errebuelta azkar asko hartu nuen. Anbulantzia bide bazterrean zegoen. Ezkerretara. Bat lurrean zerraldo zegoen. Karrera arropa zuen. Nire mailot iguala. Bera zen. Bera. Bizikletatik jaitsi eta zer zuen ikustera hurbildu nintzaion. Ez ninduen ikusi. Begiak txuri-txuri zituen. Ez zen mugitzen, baina bazihoan. Gorantz, baina ez haizearen erreinura. Beste norabide bat zeraman. Ni nintzela esan nion. Bere laguna. Bere taldekidea. Alferrik zen. Ez zidan entzuten. Ez ikusi, ez entzun, ez sentitu, ez ezer. Zerraldo zegoen. Zein eta bera. Anbulantzian sartzen ari zirela beste karrera talde bat igaro zen. Horrek ez zuen garrantzirik.

Haizearen erreinuko erregea nor izango zen ez zitzaidan axola. Karrera erregea hilda zegoen. Berarekin anbulantzian sartzen ez zidaten utzi. Ez nuen zalantzarik izan. Beraren bizikleta hartu, eta gorantz egin nuen. Beraren izenean igo behar nuen Haizearen mendia. Amorrazioz eragiten nien orain pedalei, ez automatismo hutsez. Gaizki nindoan, lehen bezalaxe. Baina indar berezia nuen. Aurpegian behera izerdia eta negar tantak. Gorantz eta gorantz egin nuen. Berarengatik. Bere bizikletarekin. Azken kilometroko pankarta pasa nuen. Beste pixkat eta kito.



Pixkat hura egin zitzaidan luzeena. Azkenean iritsi nintzen. Bizikletatik, bere bizikletatik jaitsi, eta izerdiaren iturria erabat ireki zitzaidan. Baita negarrarena ere. Helmugan banekien, eta orain ere badakit. Badakit gaizki zihoala. Badakit bere buruari gehiegizko astindua eman ziola. Alde egin eta erritmoa aldatzea astakeria handia izan zela badakit. Baina orduan ez nekien...

A. M. G. 2R

AMETZA
taberna

Santiago auzoa, 4
tel: 943 143370



Azkue Autoak

Tel: 943 861433
Estazioko kalea, 19 Faxa: 943 861067

Antonio Etxabe



*Gizonezkoen
erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

GOIKO BODEGOIA
"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20/50 ZUMAYA • Tel. 943 861391



INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN
ERREGENERAZIO ETA SALMENTA

Tel/Fax: 943 143 102 - Juan Belmonte, 2 bajo - 20750 ZUMAYA

Tranparen azpian

DAVID MAMET zuzendariak jorratu zuen timoaren gaia "La casa de juego" eta "La trama" pelikuletan. Oraingoan, hala ere, beste itxura bat eman dio. Gene Hackman aktorea aukeratzeak hori adierazten du. Bere azken kolpea joko duen lapurrarena egiten du Hackmanek. Egia esan, Danny DeVittok egiten duen pertsonaia gaiztoak bultzatuta ariko da lapurretan. Horixe da hitz gutxitan esanda, filmaren argumentuaren mamia. Thriller modernoa da, zine beltzaren gertukoa. Bakoitzaren jokabidea garbi azaltzen da hasiera hasieratik, nahiz eta gero, dena itxura izan.

Argumentua asko aldatzen da. Aktoreen arteko giro onak filma atsegina egiten du, David Mamet prestidigitadoreak egindako armiarma sarean kateatzeko aitzakia paregabea.

El último golpe
(Heist, 2001)

Zuzendaria: David Mamet
Aktoreak: Gene Hackman,
Danny DeVito, Delroy Lindo.

Abuztuak 20,
asteazkena, 22:30ean
Aita Mari zinean



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatu

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

Zumaia Hotela



Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



Frida Kahlo gogoan

SALMA HAYEK aktorearen grinari esker egindakoa da Frida Kahloren bizitza kontatzen duen film hau. Zergatik horrenbesteko grina? Salma Hayek-ek beti desiratutako proiektua izanik, Kahloren papera Madonak edo Jennifer Lopezek egitea ez zuelako nahi.

Kahlerekiko duen miresgarritasuna pintorearen gorputz eskatuari ematen dion bizitasunean islatzen du Hayek-ek. Ederki azaltzen da hori, Frida Kahlo eta Chavela Vargas tekila edanez eta "La llorona" kantua lagun dutela agertzen diren eszenan.


Koloreak dagokien lekuan daude. Diego Rivera elefanteak eta Frida Kahlo usoak elkar banatzen duten bizitzaren koadroa bezalako efektuak sortzen dituzte kolorek. Horrela, pintorearen inguruko irudiek beste tamaina bat hartzen dute, beste neurri bat, Mexikoko antzinako fantasietan hasi, Paris bohemioan bilakaera izan, eta gure King Kong maitea bizi den New Yorken bukatzeko.

Frida
Frida (2002)

Zuzendaria:
 Julie Taymor

Aktoreak: Salma Hayek, Alfred Molina, Edward Norton

Abuztuak 21
 osteguna, 22:30ean



AUTO-ESKOLA



ZUMAIÁ

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
 Tel. 943862309

UZTAILA

- 24, osteguna, 23.00etan plazan, UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA
- 25, ostirala, Bidasoaldeko Nazioarteko Folklore Jaialdiaren barne, Haur dantza ikuskizuna.
- 26, larunbata, 23.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan, XARNEGE folk taldearen ekitaldia.
- 27, igandea, 10.00etatik 15.00etara Amaiaiko plazan KONEKTA ZAITEZ
- 18.00etan plazan, eta 20.00etan Erribera kalean, BARTOK mimoaren ekitaldiak.
- 29, asteartea Egun osoan zehar, Zuloaga Museoa, "Zezenketa eta Kultura" topaketak.
- 30, asteazkena, 22.30etan Aita Mari aretoan, Tanttaka-Kukai

taldeen ikuskizuna "1937-gogoaren bidezidorretatik"

ABUZTUA

- 1, ostirala, ZUMAIKO NAZIOARTEKO MUSIKA JAIALDIAREN hasera eta Biarritz-ko Balletaren ikuskizuna.
- 2, larunbata, 20.00etan MacJeara's Band taldearen ekitaldia herriko kaleetan.
- Gauerdian BERBENA BEREZIA
- 7, osteguna, 7:30etatik aurrera KABRA eta DONTZEILEN ARRANTZA LEHIAKETA
- 8, ostirala, EUSKAL JAIK
- 9, 10.00etan ARRRAIN TXIKIAK HARRAPATZEKO LEHIAKETA
- 15, ostirala Goizean zehar, KALEKO PINTURA TOPAKETA

- Arratsaldean, KOMETA TAILERRA
- 16, larunbata, CHAMUYO taldearekin, Tango kontzertua eta dantza erakusketa.
- 18tik 21era Udako Zinea 2003 22.30etan Aita Marin.
- 18an "Atrápame si puedes"
- 19an "Frida"
- 20an "El último golpe"
- 21ean "Amarcord"
- 22tik 25era eta 28an, OIKIAKO JAIK
- 22tik 25era, eta 28an, OIKIA AUZOKO JAIK
- 30, larunbata KUADRILEN EGUNA
- 18.30etan BOSTKIROL Froga
- 22.00etan UDAKO GAZTE DISKOTEKA
- 12-16urterko gaztetxoentzat

IRAILA

IRAILAK 6 Azoka Mediebala

ARTEA

Erakusketak Alondegian

- Uztailak 23 - abuztuak 14: TXIKI KEIXETAren pintura erakusketa

MUSIKA JAIALDIA 2003

Kontzertuaren egitaraua

Abuztuak 1: Biarritzeko Balleta, Aita Mari antzokian, gaueko 22:00etan

Abuztuak 3: Organo eta txistu kontzertua, San Pedro Parrokian, gaueko 22:00etan

Abuztuak 4: San Pedro Abesbatza, San Pedro Parrokian, gaueko 22:00etan

Abuztuak 5: Filma Nosferatum, Mari kaleko plazoletan (ordutegia finkatzeko)

Abuztuak 6: irakasleen kontzertua, San Pedro Parrokian, gaueko 22:00etan

Abuztuak 9: eskukosoinu eta piano kontzertua, Maria eta Jose ikastetxean, gaueko 22:00etan

Abuztuak 10: ganbara lehiaketa, Maria eta Jose ikastetxean, gaueko 22:00etan

Abuztuak 12: jaialdiko orkestraren kontzertua, San Pedro Parrokian, gaueko 22:00etan.

LABORATEGIAK ETA KALEKO KONTZERTUAK ORAINDIK FINKATZEKO DAUDE.



ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAILA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAUZ (GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
...mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirazelaen mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak.
Balorazioak

TXINGURRI
Koop. Elk.
Nekazaritza Injeneru Teknikoak

ALTZARIAK
OSTOLAZA
AROTZEGIA



Mota guztietako altzariak eta arotzegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

OPTIKA ZUMAILA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
ZUMAILA

OSASUN-ZIURTAGIRIAK GIDATZEKO ETA EHIZARAKO BAIMENAK LORTZEKO

Ordutegia: astelehenetik ostegunera, 18:00etatik 20:00etara
Aurretik ez dago txanda eskatu beharrik. Eraman beharrekoa: gidatzeko baimena eta argazki bat

Ipar Kalea 17, Behea, (Pagoeta Tabernaren ondoan) ZARAUZ
Telefono zenbakia: 686 954 299

D'Ana
Telepoindegia



Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406



amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite
ileapaindegia

ekin INSTALAZIO ELEKTRIKOAK TELEKOMUNIKAZIOAK
/elektrizitatea, s.l.

Erribera kalea 18 Behe Tel/Fax: 943 143097
20.750 Zumaila ekin@ekinad.com

Estalatzailer/banatzailer ofiziala

CANAL+ via
CANAL DIGITAL

Telebista
MoviStar
MoviLine

ert
informatika

tresna digi
internet
scanner



Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

DALAC
COMPLEX

ZUMAIAN, UDAN, BADUZU ZER EGINIK

ABUZTUAREN 2an, larunbotean,
20.00etan MacJeara's Band taldearen
ekitaldia herriko kaleetan.

Gauerdian **BERBENA BEREZIA**

ABUZTUAREN 8an **EUSKAL JAIAK**
Goiz soinua
Baserriko produktuen azoka
Haur jolasak
Marmitako lehiaketa
Bazkari herrikoia
Sagardo dastaketa

ABUZTUAREN 30ean **KOADRILA EGUNA**

**GU GUZTION ESKU DAGO ANTOLATZEA...
ZUK ZER DIOZU?**

Informazio gehiago:

Tel. 943 861 056

zumaia@udal.gipuzkoa.net



Larunbat arratsaldetan irekita!!

Ardantzabide Altzariak

Sukaldeak
Egongelak
Era guztietako logelak
Mahaiak
Ateak
Leihoak
Horma armairuak
Tarimak
Era guztietako arotz lanak

Hego kalea, 4 (estazioa) 5. pabilioia

Tel./Faxa: **943-86-25 32**

TAILERRA: Santixo auzoa40

